

# Emakumeen zapalkuntzaren historia dantzen bidez josi du Gero Axularrek

Txintxarri Aldizkaria 2021-10-24 10:00



1 / 78



Dantza taldeak *Higa* ikuskizunaren emanaldia egin du larunbat iluntzean Manuel Lekuona kultur etxean. Donibane-Lohitzuneko sorginen jazarpena du ardatz.

Emakumeen jasan duten zapalkuntza, euskaldunok berezko hizkuntza eta kulturagatik jasandako erasoak eta jarrera aurrerakoia duten gizarte taldeek euren eskubide eta ametsak lortzeko egin behar izan dute borroka. Hiru hari horiek gurutzatzen dira *Higa* ikuskizunean.

Gogoetarako bide izateaz gain, zirrargarria ere bada ikuskizuna. Zuzeneko musika, argiztapena, jantziak, estetika orokorra eta nola ez, dantzarien trebezia. Denak bat egiten du, zenbait unetan ikusleak aho zabalik utziz. Merezitako txaloak jaso dituzte, ia dantza guztien amaieran.

Lau ataletan banatutako istorioa da, bakoitza zarpisei dantzek osatua. XVII. mendeko Donibane-Lohitzunen du abiapuntua, gizonezkoak arrantzara joaten zirela eta emakumezkoak bertan geratu, etxeko zaindari. Bigarrenean, berriz, diru eta lur liskarrak argitzeko kanpotik etorritako epaile bat agertuko da, bertako kultura eta hizkuntza ezagutzen ez dituen. Ondorioz, hirugarren zatiko epaiketa gertatuko da, sorgintzat hartuko baititu emakumezkoak. Amaierakoan, berriz, gizonezkoak Ternuatik bueltatu, eta liskarra amaituko da.

Andoni Iparragirre eta Juan Luis Unzurrunzagak zuzendu dute ikuskizuna. Estreinatzeko hilabete pare bat falta zitzaieela pandemiak bertan behera utzi zuen plangintza. Bi urteko lana izan da guztia prestatzea. Lehenik ideia pentsatu eta horren inguruko koreografiak eta musikak sortu zituzten, ondoren, jantziak aztertu eta istorioa nondik kontatu ikertu zuten. Hori zehaztuta zutela, dantza eta musikarekin beste urtebeteko lana egin zuten.

Ikuskizunak, gainera, bat egiten du DraveTzari proiektuarekin eta kultur etxean bertan dagoen erakusketan jasotzen da gaitzaren eta Nora Aras Perea dantzariaren bizipena.

[Kultura](#)

## Erlazionatuak

[Luis Miguel Aras: "Gizarte inklusiboa galdu egiten da detaile txikietan"](#)

Maddi Zaldua 2021 urr 22 [Elkarrizketak](#)



Dravet sindromea dauka Nora Aras Preak eta jaiotzen diren 20.000 haurretatik bakarrak garatzen duelako izendatu dute gaixotasun arraro. Gaitzaren ...





### ['DraveTzari'-ren historia ikustarazteko erakusketa jarri dute Manuel Lekuonan](#)

Txintzarri Aldizkaria 2021 urr 22 [Kultura](#)

Donostiako Gero Axular Dantza Taldeak eta Apoyo Dravet elkarteak 'DraveTzari' erakusketa jarri dute ikusgai Manuel Lekuonan; eritasunaz kontzientzi...

Erantzun ▾



## Ikusienak



### [Aurtengo inauterietan zer egin erabakitzeke, bilerara deitu du udalak](#)

Txintzarri Aldizkaria urt 17, 13:43 [Kultura](#)



### [Azkarra izan da 2022ko lehen ohiko udalbatzarra](#)

Txintzarri Aldizkaria urt 15 [Politika](#)



### [Urduritasuna eta ilusioa begietan](#)

[gabonak2021](#)  
Txintzarri Aldizkaria 2021 abe 24 [Kultura](#)




### ['Mi hijo solo camina más lento'](#)

Txintzarri Aldizkaria urt 05 [Kultura](#)



### [Harrobiko gurutzea eta eraginkortasun sinbolikoa](#)

Asier Miron urt 11 [Iritzia](#)



### [Lasarte-Orian 296 kutsatze atzeman dituzte azken lau egunetan](#)

[Koronabirusa Lasarte-Orian](#)  
Txintzarri Aldizkaria urt 17, 14:18 [Gizartea](#)

## Ttakun Kultur Elkartea

Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria 20160 Gipuzkoa  
943 37 14 48  
txintzarri@txintzarri.eus | txintzarri@ttakun.eus

Codesyntaxek garatua





# TOKIKOM

## Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)[AIKOR](#)[AIURRI](#)[ALEA](#)[AMEZTI](#)[ANBOTO](#)[ANTXETA](#)[ATARIA](#)[BALEIKE](#)[BARREN](#)[BEGITU](#)[DEUSTUALDEA PREST](#)[ERLO TELEBISTA](#)[ERRAN](#)[EUSKALERRIA IRRATIA](#)[GEURIA](#)[GOIENA](#)[GOIERRI TELEBISTA](#)[GUAIXE](#)[HIRUKA](#)[KARKARA](#)[KRONIKA](#)[MAILOPE](#)[MAXIXATZEN](#)[NOAUA](#)[OIZMENDI TELEBISTA](#)[PLAENTXIA](#)[TXINTXARRI](#)[URIOLA](#)[UZTARRIA](#)

[28 KANALA](#)

[Gurean](#)[Plazanbazan](#)[Ttap](#)[Tokikom publizitatea](#)